



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
María Milagros Erreguerena Vera

2013ko abenduaren 16an, 13:00etan, Aparteko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA. LATSAGAKO U.E. 2.

P.M.E. jaunak jarri zuen gora jotzeko errekurtsua (13-04090 zenbakia), Iturengo Udalbatzak 2013ko irailaren 19an hartutako erabakiaren kontra. Akordio hartan erabaki zuen Udalbatzak, M. jaunak jarritako aukerako berraztertze errekurtsua ukatzea. 2012ko azaroaren 8ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren kontra jarri zuen berraztertze errekurtsu hura — Latsagako UE 2 unitateko borondatezko birzatiketa proiektua eta urbanizazio proiektua onetsi zituenak—.

Errekurtsua aztertu eta gero, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko 12. artikulua xedatzen duenarekin bat etorriz, aho batez erabaki da txosten-idazkia onestea, eta Nafarroako Auzitegi Administratibora bidaltzea.

Eta bertzerik ezean, 13:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.